


Kostuen Egitura

Garrantzitsua da gure zerbitzua ezartzeko orduan, gure kostuak zeintzuk diren jakitea. Horretarako, gure enpresak izango dituen kostu gehienak, taula hauetan antolatuko ditugu:



Kostu finkoak €/hilabetean (hurbilketa)	
Soldatak	1971€ langile bakoitzeko (Aurreikuspena 1971€ * 3 = 5753€)
Alokairua	550€
Argia	55€
Ura	30€
Gasa	65€
Aholkularitza	50€
Telefonia kostuak	75€
TOTALA	6578€

Kostu aldakorak €/hilabetean (hurbilketa)	
Lehengaiak	200€-300€ produktu suntsigarriak
Zergak	Sozietateen gaineko zerga. Enpresa hasiberria izateagatik lehenengo bi urteetan urte osoan izandako irabazien %15ekoa izango da. Ondoren, %20ekoa edo/eta %25ekoa izango da.

Gure enpresan bi kostu mota izango ditugu: finkoak eta aldakorak. Lehenik eta behin, kostu finkoei erreparatuko diegu, horiek izango baitira hilean behin ordaindu beharko ditugunak, ekoitzi duguna edo egin dugun lan-kopurua kontuan hartu gabe.

Horretarako, lehenik eta behin, pertsona baten batz besteko soldata zein izango den erabaki dugu: 1261 €. Horretarako, enpresak 1971€ ordaindu beharko ditu langile bakoitzeko; izan ere, enpresak soldata horren % 23 ordaindu beharko dio enpresaren Gizarte Segurantzari. Enpresak langile bakoitzeko ordainduko dituen 1971€etatik, 471€ arestian aipatutako Gizarte Segurantzari bideratuko dira. Ondorioz, langileak 1500 €-ko soldata gordina izango luke, baina ondoren soldataren %16 Gizarte Segurantzara eta PFEZra bideratu beharko litzateke; beraz, 1500€ri, €239 €kendu beharko genizkioke, langilea 1261 €-ko soldata garbiarekin geratuz.

Bestalde, Herriko Udalaren webgunea kontsultatu ondoren, eta batez besteko bulego baten alokairuak zenbat balio dezakeen ikusi ondoren, hilean 550€ ordaindu beharko ditugula kalkulatu dugu. Bestalde, gure bulegoa mantentzeko, aurreikusi dugu 55€ beharko ditugula argirako, 30€ ura ordaintzeko eta 65€ gaserako. Telefono konpainia ugari aztertu ondoren, Wi-Fi zerbitzuak eta telefono line kontratatzeagatik, gutxi gora behera 75 € ordainduko ditugula aurreikusi dugu. Azkenik, kostu finkoetan aholkularitza zerbitzu bat kontratatzea ere erabaki dugu enpresaren administrazio eta kudeaketa eramateko.

Kostu aldakorrei dagokienez, bi nabarmendu ditugu. Alde batetik egunerokotasunean erabili beharko ditugun lehengaiak eta bestetik enpresak ordaindu beharreko zergak.

Lehengaien edo produktu suntsigarrien barruan hurrengo hauek hartu ditugu kontutan: bulegoan erabili beharreko materialak, esaterako, bolalumak edo/eta orriak, adituek beraien lana aurrera eramateko erabili behar dituzten lehengaiak, adibidez fisioterapiako kontsultan beharrezkoak diren kremak, eta azkenik COVID-19aren aurkako neurriak bermatzeko izan beharreko produktuak, hala nola, hidrogela, musukoak edo/eta eskularruak. Hau guztiak 200€ eta 300€ arteko kostua suposatuko duela aurreikusi dugu. Baina ez da hilabete guztietan finkoa izango.

Enpresek [Sozietateen gaineko zerga](#) deritzon tributu zuzena ordaindu behar dute. Honen arabera, enpresek errentaren ehuneko jakin bat ordaindu beha diote ogasunari. Espainian ordaindu beharreko ehunekoa %20 eta %25 artekoa izaten da, baina hasiberriak diren enpresek bakarrik errentaren %15a ordaindu behar dute lehen bi urtetan.